



A Artamugarriak. Artamugarriak Urumeako bailaran hain ohikoak diren saroeen erdialdea adierazten duten harriak dira. Saroe edo saroi bezala ere ezagunak ziren gune hauen jatorria oraindik ere zalantzakoa den arren, aintzina, basogintza-guneen baitan esparru "libre" garrantzitsu bat ziratekeela uste da. Ibilbide honetatik gertu aurki ditzakegun artamugarriak hauek dira:

Akola: gure ibilbidetik kanpo, Akola baserriko lurretan dago kokatua eta oraindik ere ongi kontserbatuak dago. Ikertzaileek adierazi dutenez, saroeak gune eguteren eraiki ohi ziren beti ere. Kasu hau, horren adibide garbi bat izan daiteke. Artamugarria erreferentziatzen harturik jartzen ziren baztermugarriak ikus daitezke oraindik ere, baserrian inguruan.
Larregain: Ibilbidetik nahiko aldentuta, Larregain sagardotegiaren inguruetan kokaturik dago, aurkitzeko zaila den gunean.

Mojones de sel. Los "artamugarriak" son unos mojones de piedra muy utilizados en el valle del Urumea y que indicaban concretamente el centro del sel ó recinto. El origen de éstos seles es todavía incierto. Sin embargo se piensa que antiguamente delimitaban un recinto "libre" dentro de un entorno de explotación del bosque. En las proximidades de éste recorrido podemos localizar dos mojones de éste tipo, en concreto:
Akola: Alejado un poco de nuestro recorrido y sito dentro de los terrenos del caserío Akola. Bien conservado hoy en día. Tal y como los investigadores apuntan que era costumbre hacerlo, está situado en un lugar muy soleado. Incluso alrededor del caserío se conservan todavía algunos de los mojones exteriores que se ponían tomando como referencia el central.
Larregain: Situado en los alrededores de la sidrería Larregain, apartado del camino y en sitio de difícil acceso.

B Igorin - Akola estazio megalitiko. Hernani, Astigarraga eta Donostiako lurretan zehar zabaltzen den estazio megalitiko honek, Hernaniko udalerrian 7 trikuharri ditu. Multzo Monumentalaren kategoriarekin, Kalifikaturiko Kultur Ondasun izendatua, Hernaniko Sagastietako Lepoa I izeneko trikuharria da hoberen kontserbatuak dagoena.

Estación megalítica de Igorin-Akola. Este conjunto megalítico se extiende por tierras de Hernani, Astigarraga y San Sebastián. Tan sólo en los terrenos de Hernani ya cuenta con hasta siete dólmenes. De entre ellos, considerado "Conjunto Monumental" y "Bien de interés cultural" el dólmen denominado "Sagastietako Lepoa I", es el más bello y el que en mejor estado de conservación se encuentra.



Hernaniko Ibilbide sarea

Red de senderos de Hernani

3,7 km. 1:00 h. 192 m.

Ibilbide interesgarri bezain eder honek, zailtasun txikiko bide bat eginez Hernaniko hainbat trikuharri eta artamugarri ikusteko aukera bikaina ematen digu, era berean bista ederrez gozatzea izango dugularik. Bide batez inguruko sagardotegietara doan jendearentzat bazkal edo afal aurreko txango bikaina izan daiteke.

Este recorrido, tan interesante como bonito y carente de dificultad, nos permite descubrir dólmenes, mojones interesantes y todo ello en parajes desde los cuales la vista es preciosa. Lo recomendamos especialmente para aquellos que quieren abrir el apetito antes de ir a comer o cenar a alguna de las sidrerías de los alrededores.

Hernaniko ibilbide sarea osatzen duten ibilbideak:

- 1 Santa Barbara HIU-1
- 2 Sagardotegiak HIU-2
- 3 Oindiri bira HIU-3
- 4 Urruzuno HIU-4
- 5 Epele PR-Gi 1002
- 6 Ereñotzu SL-Gi 1002
- 7 Oberan PR-Gi 1001
- 8 Larregain**
- 9 Usokori bira
- 10 Latse
- 11 Aparrain

Informazio praktikoa


Ibilbide hau ez dago berez balizatuta. Bidean zehar aurkituko ditugun markak beste ibilbideenak dira. Batzuetan gure bideak bat egingo du markekin baina besteetan ez. Horregatik adi egon beharko dugu eta hemen azaltzen dugun deskribapenari arreta jarri beharko diogu. Kontuan hartzekoa da ehiza garaian Akola-Igorin mendi lerroan harreta handiz ibili beharko dugula ehiza-postuetatik gertu pasatzerakoan.

Información práctica

Este recorrido no tiene una señalización específica para él. No obstante en el camino encontraremos, en bastantes tramos, marcas correspondientes a otros recorridos. Unas veces las seguiremos pero otras veces no. Por todo ello es imprescindible prestar mucha atención a la descripción que hacemos del mismo. Advertir que en época cinegética deberemos prestar atención en la zona del cordal Akola-Igorin ya que pasaremos junto a puestos de caza.

**Natura errespetatu ezazu,
denon ondarea da**

Respetar la naturaleza, es patrimonio de todos



Nondik hasi Punto de partida

Hasierako puntua Larregain sagardotegi ondoko bidegurutzean kokatzen da. Haraino heltzeko Hernani eta Goizueta elkartzen duen GI-3410 errepidea hartu eta 4garren kilometrotik gorantz ateratzen den bide asfaltatua jarraitu beharko dugu, 1,5 kilometrotara lepo batera heldu arte, sagardotegiaren inguruan.

El punto de partida del recorrido se situa en el cruce frente a la sidrería Larregain. Para ir hasta allí, tomamos la carretera GI-3410 que une Hernani con el pueblo navarro de Goizueta y justo en el kilómetro 4 tomamos a la izquierda una carretera asfaltada que, en fuerte ascenso, nos lleva en 1,5 kilómetros hasta un collado en el que hay un cruce de pistas junto a la sidrería.

Ibilbidearen deskribapen zehatza Descripción del recorrido

Larregain Larregain
0km
0h 0m
GPS UTM ED50 30T X=586222 Y=4789170

Bidegurutzean metalezko hesi bat gurutzatu eta ekialdera doan pista hartu beharko dugu. Langatik 50 metrora arditegi bat aurkituko dugu gure eskuinean. Gaintitu ostean, arditegiaren egurrezko hesia bukatzen denean, pista utzi beharko dugu eskuinera hartuz. Hesia zeharkatzeko egina dagoen igarobide batetik pasa eta haritz amerikarrez osaturiko baso baten gerizpean sartuko gara. Bertan, pixkanaka gora egiten duen bidea aurkituko dugu. Bide honetatik jarraituz basotik aterako gara eta segituan, abereek edateko erabiltzen duten uraska batekin egingo dugu topo gure ezkerretara. Puntu honetatik bidea linea elektriko baten azpitik pasatzen da eta gure eskuinera dagoen mendiaren magaletik zuzen, gora egiten du. Bideak, eskuinera egiten du bira bortizki magalaren erdialdean. Minutu gutxian lepora iritsiko gara.

Desde el cruce debemos tomar la pista que sale hacia el Este, teniendo que atravesar para ello una langa metálica. A sólo 50 metros de la langa, encontramos un redil a nuestra derecha. Nada más rebasarlo, cuando el vallado de madera del mismo finaliza, debemos abandonar la pista girando a la derecha para atravesarlo por un paso preparado a tal efecto y entrar así a la sombra de un pequeño bosque de roble americano. En él localizaremos un sendero que va ascendiendo poco a poco para luego salir del bosque y enseguida encontrar a nuestra izquierda un bebedero para el ganado. Desde este punto el sendero pasa bajo un tendido eléctrico y asciende recto la ladera del monte que tenemos a nuestra derecha. El sendero da un fuerte giro hacia la derecha a mitad de la ladera. En pocos minutos llegamos al collado.

1,1km
1
0h 25m
GPS UTM ED50 30T X=586859 Y=4789058

Saratzetako lepoa Collado de Saratzeta
Behin lepoan gaudela aldapa gora egin beharko dugu oraindik. Pixkanaka aldapa gora eginaz, mendiaren bizkarretik, harizti eder baten azpialdean ezkatzen den mendiaren puntara iritsiko gara. Generaman norantza berean, oraingoan behera eginaz, bideak beste lepo batera eramango gaitu.

Desde el collado debemos continuar ganando altura. Ascendiendo suavemente por el sendero que sigue siempre el cordal del monte llegamos hasta su cima sita bajo un bonito bosque de roble. Siguiendo la dirección que llevábamos, el sendero nos conduce después en descenso hasta otro collado.

1,8km
2
0h 38m
GPS UTM ED50 30T X=587516 Y=4789390

Akolako lepoa Collado de Akola
Lepora iritsita eskuinera egin beharko dugu alanbre-hesiz inguratutako baso misto baten ertzetik ibiliz. Metro gutxira, zeharkako bidea aurkituko dugu. Eskuinera joko dugu bide honetan eta tranpa kanadar bat igaroko dugu segituan. Minutu gutxira beste tranpa bat zeharkatuko dugu. Honela gure ezkerrean dagoen Akolako atsedenekura iritsiko gara. Pista jarraituz, Akolako aparkalekura iritsiko gara.

Llegados al collado debemos girar a la derecha bordeando así un bonito bosque mixto rodeado por una alambrada. A pocos metros nos encontramos transversalmente con otra pista. La tomamos hacia la derecha y pasamos enseguida una trampa canadiense. A los pocos minutos pasamos otra trampa. Hemos llegado así al área recreativa de Akola, que queda a nuestra izquierda. Por la pista llegamos en breve hasta al aparcamiento de Akola.

2,8km
3
0h 48m
GPS UTM ED50 30T X=587062 Y=4788946

Akolako aparkalekua Aparcamiento de Akola
Hemendik, aurreraka doan zementuzko pista hartuko dugu. Geroago topatuko dugun bidegurutze bakarrean eskuineko bidea hartuko dugu, Larregain sagardotegira iritsi arte.

Desde aquí, tomamos la pista de cemento. Un poco más adelante, en un cruce seguimos por la derecha y llegamos al cruce junto a la sidrería de Larregain.

3,7km
0
0h 00m
GPS UTM ED50 30T X=586222 Y=4789170

Larregain Larregain

